

Balioko duen diskurtso bakarra izango da hizlariak ekitaldian bertan eskainiko duena.
El único discurso válido será el pronunciado por el orador en el acto.

Iñigo Urkullu Renteria

Hernani, 2020ko uztailaren 3a

Euskadik 4.0 industriaren Europako erreferente izatea lortu du. Industria aurreratua berrikuntzaren eta ekonomiaren motorra da. Kalitateko enpleguaren bermea. Duela hiru hamarkada “industria-politkarik onena existitzen ez zena” zela esaten zuten batzuk. Orduan ere, Euskadik industriaren aldeko apustua lehenetsi zuen. Gaur egun ere industria-politika sendoa garatzearen aldeko apustua egiten dugu. Industria-politika aurreratuenak berresten eta sustatzen ditugu.

Euzko Alderdi Jeltzalearen ZAZPI KONPROMISO industria politika garatzeko:

1. Digitalizazioa sustatzea, batez ere enpresa txiki eta ertainetan. Horretarako, 5G abiadura oso handiko sareak hedatzeko 10 proiektu garatuko ditugu.
2. Kluster biosanitarioa indartzea eta zientzia, teknologia eta enpresa ekosistema garatzea. Helburua osasun-sistemaren egungo eta etorkizuneko beharrei erantzutea da. Besteak beste zahartzaroaren ondorio diren mendekotasunei erantzun berritzaile bat emanaz.
3. Automobilgintzaren sektorea eta mugikortasun elektrikorako trantsizioa areagotzea. Zornotzako AIC handitzea estrategia horren lehen fasea da.
4. Enpresa txikietako berrikuntza teknologikoa eta ez-teknologikoa bultzatzeko programa berezi bat onartzea. Programa horrek lanbide-heziketako zentrozen inplikazioa sustatuko du.
5. Euskal enpresa traktoreen tokiko errotzea bermatzea, partaidetza publiko-pribatuko Funtsen bidez. Herri bezala estrategikoa den gaia.
6. Lehentasunezko jarduketa-eremuen industria suspertzeko estrategia garatzea. Horrekin batera, koronabirusaren krisia dela-eta zailtasunak dituzten enpresei laguntzeko programa indartzea.
7. Langileen eredu inklusibo parte-hartzailea sustatzea euskal enpresetan. Eredu hori Euzko Legebiltzarrak aho batez babestu zuen.

Etorkizun ekonomikoari aurrea hartu behar diogu. Erronka berriei aurre egin behar diegu. Norabide bereko erronka berriak ditugu: industria, berrikuntza, inbertsioa, nazioartekotzea. Baita erantzun berriak ere: digitalizazioa; trantsizio energetikoa; ekonomia zirkularra. Produktuen industrietatik konponbideen industriara igaro behar dugu. Horrek esan nahi du manufaktura-industria zerbitzu aurreratuekin integrazteko ahalegina egin behar dugula. Industria ziklo osoari erantzuteko gai izan behar gara, balio erantsi gero eta handiagoko zerbitzu integralak emanez. Gure erronka da industria eta zerbitzu aurreratuak euskal ekonomiaren % 40 baino gehiago izatea. Hori da Euzko Alderdi Jeltzalearen helburua: industria gehiago, enplegu gehiago eta hobea. Industria mailan ere berdintasun politikak sustatuz.

Euskadi ha logrado situarse como un referente europeo de la industria 4.0. La industria avanzada es nuestra tarjeta de presentación en el mundo. Es el motor de la innovación y de la economía vasca. Cuando los cantos de sirena decían que la mejor política industrial era la que no existía, Euskadi apostó fuerte por la industria. Apostamos por desarrollar una política industrial sólida. Han sido años de trabajo y adaptación permanente que, ahora, están dando fruto.

Presento siete compromisos del Partido Nacionalista Vasco para una Política industrial en Euskadi:

1. Reto digital. Impulso a la digitalización especialmente en las pequeñas y medianas empresas. Vamos a desarrollar 10 proyectos piloto de extensión de las redes de altísima velocidad 5G.
2. Cluster biosanitario. Desarrollo de un potente ecosistema científico, tecnológico y empresarial. El objetivo es dar respuesta a las necesidades del sistema sanitario. Respondiendo, también desde el punto de vista industrial, a las necesidades derivadas de la dependencia por el envejecimiento de la población.
3. Automoción. Dinamizar el sector de la automoción y su transición a la movilidad eléctrica. Vamos a proceder a la ampliación de AIC Amorebieta.
4. Innovación. Programa específico de innovación tecnológica y no tecnológica en las pequeñas empresas, con la implicación activa de los centros de formación profesional.
5. Fondo de arraigo. Garantizar el arraigo local de las empresas tractoras vascas a través de fondos de participación público-privada. Se trata de un objetivo estratégico de País.
6. Revitalización industrial. Estrategia de revitalización de la industria en las zonas de actuación preferente y apoyo a las empresas en dificultades por la crisis del coronavirus.
7. Nuevo modelo de empresa. Promoción del modelo inclusivo participativo de trabajadores y trabajadoras en las empresas vascas. Este modelo ha sido apoyado por unanimidad en el Parlamento Vasco.

Nos enfrentamos a nuevos desafíos. Nuevos desafíos con un mismo rumbo: industria, innovación, inversión, internacionalización. También nuevas respuestas: digitalización; transición energética, economía circular. Tenemos que pasar de una industria de productos a una industria de soluciones. Tenemos que saber dar respuesta a todo el ciclo industrial, ofertando unos servicios integrales de mayor valor añadido. Nos proponemos avanzar en la integración de la industria manufacturera con los servicios avanzados. Esta transición implica poner en el centro de la política industrial a las personas. Nuestro reto es lograr que la industria y los servicios avanzados representen más del 40% de la economía vasca. Promocionando, también en la industria, la igualdad de oportunidades.